



## ALDEZ AURREKO KONTSULTA, LEHENTASUNEZKO MEZENASGO JARDUERAK 2018RAKO FINKATZEKO FORU DEKRETU PROIEKTUAZ.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariatasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) Arauaren helburuak,
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak aldatzeko etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariatasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, abenduaren.....(e)ra arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	<p>Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubide eta mezenasgorako zerga pizgarrienak, arautzen du nola parte hartu behar duen sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduerak eta programak finantzatzen.</p> <p>Hain zuzen ere, foru arau horren 29. artikulua 1. idatz zatiak dio Arabako Foru Aldundiak zehaztuko duela zeintzuk izango diren ekitaldi bakoitzean lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda, foru arau horretan bertan aipatzen diren interes</p>
--------------------	---



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Ogasun, Finantza  
eta Aurrekontu Saila  
Departamento de Hacienda,  
Finanzas y Presupuestos

	orokorreko helburuen eremuka.
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Arau agindu hori betetzea.
<b>HURA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA.</b>	Beharrezkoa da zerrenda onartzea 2018rako.
<b>HELBURUAK.</b>	Onartzea lehentasunezko mezenasgo jarduera edo programen zerrenda, foru aginduak dioen interes orokorreko helburuen eremuan.
<b>ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK.</b>	Ez dago aukerako irtenbiderik.